



◆ “Karmengo Ama kaleko Peima harategiak publizitate orria banatu du postontzietan. Informazio guztia elebietan dago. Eskaparatean ere produktuen izenak euskaraz eta gazteleraz dituzte”.

Euskararen barnetik eta ataritik



◆ “Joan den egunean Donosti Gaseko kontratua egitera joan nintzen eta inprimakiak erdara hutsez eman zizkidanten”.

Euskararen alde egiten dena txalotu eta euskararen kontra egiten dena aipatzeko aukera duzu 943-43 12 28 ifnoan.

# Gomistegi berritzeko egitasmoa

## 170 etxebizitza eraiki nahi dituzte

**U**dal Gobernuak Bidebietako Gomistegi eraberritzeko proiektua jendaurrean aurkeztea erabaki du. Pasaiarekin muga duen ingurune honetan bi arrain faktoria zeuden garai batean. Gaur egun, berriz, hainbat denda eta tailer dago pabeiloi horietan. Udalaren helburua ingurua txukundu, pabeiloiak behera bota eta etxebizitzak egitea da.

### Errotonda berria

Osora, 170 etxebizitza egiteko asmoa du Udalak, haietatik 34 babes ofizialekoak. Horrez gain, egungo 64 etxebizitzak mantenduko dira. Bost mila metro karratuko parkea egingo da eta plaza handi bat. Plazari dago-kionez, “inguru honetan mota honetako azpiegiturarik ez dago”, adierazi du Jorge



Udalak Gomistegiko lantegi zaharrak behera bota eta etxebizitzak eta plaza handi bat egin nahi ditu. Horrez gain, parke bat ere egingo du.

Letamendia Hirigintza Planean zinegotziak. Trafikoak ere arazoak eragin dituela gogorarazi du Letamendiak, Pasaia hiribidea eta saihebidaren arteko lotura txarra delako, eta beraz, errotonda bat jarri nahi da bertan.

Gomistegiko egitasmoa aurrera eramateko, pabeiloi-tako dendak, etxebizitzak eta garajeak lekuz aldatu behar dira. Lekualdatzeak etxebizitza berriak eraikiko dituen enpresak ordaindu behar dituzte, Letamendiak azaldu duenez.

## MOKO eta KARMELC

KONTSUMISMOAREN ERAGINEZ JENDEAK BI SAKELFONO EROSTEN DITU:



BATA DEIAK EGITEKO,



ETABESTEIA, DEIAK JASOTZEKO!

